

## 8-10 URTE: IKASTETXEAK

### IeZ proiektua: "Ikastetxeen arteko anaitasuna: hezkuntzak batzen gaitu"

#### 1. Justifikazioa

Proiektu honek, gure lurraldeko hezkuntzaren errealitatea, Itaka Escolapios fundazioak garapen bidean dauden herrialdeetako ikastetxeen errealitatearekin lotzen du. Hezkuntzarako eskubidea, eskubide unibertsal gisa aztertzeo aukera ematen digu, geografikoki urrun dauden baina balio komun bidez lotuta dauden hezkuntza-komunitateen arteko benetako loturak ezarri.

#### 2. Helburuak

##### Ikaskuntzaren helburuak:

- Hezkuntzarako eskubidea oinarritzko eskubide unibertsal gisa ulertzea
- Komunikazio-gaitasunak, formatu ezberdinak erabiliz garatzea (idatziz, digitalki, ikus-entzunezkoak)
- Hezkuntza- eta kultura-errealitate ezberdinak ezagutu eta balorea ematea
- Lankidetzeta-lana eta nazioarteko elkartasuna sustatzea

##### Zerbitzuaren helburuak:

- Itaka Escolapios-ek dituen ikasketarako zentroekin komunikazio-lotura errealak ezartzea
- Hezkuntza-baliabideak sortzea (jolasen liburua) beste ikastetxe batzuekin elkarbanatzeko.
- Hezkuntza-desberdintasun globalei buruz sentsibilizatzea

#### 3. Jakintza-eremuak eta-arloak

- **Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza**
- **Gaztelania eta Literatura**
- **Arte Hezkuntza**
- **Matematika** (jolasetan eta estatistiketan)

**4. LOMLOE konpetentzia espezifikoak eta arloekiko lotura**

Arloa	LOMLOEko konpetentzia espezifikoa
Ingurunearen ezagutza	CE. CM.1 "Gailu eta baliabide digitalak modu seguru, arduratsu eta eraginkorrean erabiltzea, informazioa bilatzeko, komunikatzeko eta banaka, taldean eta sarean lan egiteko, eta eduki digitala berregiteko eta sortzeko, hezkuntza-testuinguruaren behar digitalen arabera "
Gaztelania	CE. LCL.3 "Ahozko testuak eta testu multimodalak arintasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, genero diskurtsiboen berezko konbentzioak kontuan hartuta, eta ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, jarrera kooperatibo eta errespetuzkoarekin, bai ezagutza eraikitzeke lotura pertsonalak ezarriz, bai hainbat gizarte-testuingurutan modu aktiboan eta informatuan esku hartzeko."
Arte Hezkuntza	CE. EA.4 "Hainbat teknika, tresna eta euskarrirekin (digitalak barne) egindako ekoizpen artistikoak, banakakoak edo taldekoak, modu gidatuan sortzea, hizkuntza bisuala osatzen duten elementuen adierazpen-aukerak aplikatuz, eta norberaren gaitasunetan konfiantza eta besteekiko errespetua erakutsiz. "
Matematika	CE. M.1 "Eguneroko bizitzako eta matematikaren berezko problemak interpretatzea eta ebaztea, hainbat estrategia eta arazoitzeko modu aplikatuta, jarduteko eta irtenbide posibleak lortzeko modu desberdinak aztertuz"

**5. Oinarrizko jakintzak (LOMLOE Lehen Zikloa)**

- **Ingurunearen ezagutza:** Lurra unibertsoan. Unibertsoan eta inguruko fenomeno fisikoetan ematen diren elementuak, mugimenduak eta dinamikak
- **Hizkuntza:** Idatzizko produkzioa: plangintza, testualizazioa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan. Elementu grafikoak eta infografiak erabiltzea, ulermena errazteko
- **Arte Hezkuntza:** Teknikak, materialak eta baliabide informatiko eta teknologikoak: ekoizpen plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak aurkitzeko, sortzeko, manipulatzeko eta zabaltzeko aplikazioa.
- **Matematika:** Zenbaki naturalen, osoen, hamartarren, zatikien eta ehunekoen ordena interpretatzeko eta manipulatzeko estrategiak eta teknikak

## 6. Sekuentziario didaktikoa (12 saio)

Astea	Saioak	Jarduera nagusia	Landutako LOMLOEko konpetentziak	Azken produktua	Ebaluazioa
1	1-2	"Beste ikastetxe bat ezagutzea" - Itaka Escolapios-en ikastetxeari buruzko ikerketa eta gure errealitatearen aurkezpena	CE. CM.1 "Gailu eta baliabide digitalak modu seguru, arduratsu eta eraginkorrean erabiltzea, informazioa bilatzeko, komunikatzeko eta banaka, taldean eta sarean lan egiteko, eta eduki digitala berregiteko eta sortzeko, hezkuntza-testuinguruaren behar digitalen arabera "	Bi zentzuen arteko konparaketa-dosier informatiboa	Ikerketa eta iturri digitalen erabilerarako errubrika
2	3-4	"Lehen gutunak: gure burua aurkezten dugu" - Bakarkako eta taldeko aurkezpen-gutunak idaztea, aukeratutako ikastetxeari bidaltzeko.	CE. LCL.3 "Ahozko testuak eta testu multimodalak arintasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, genero diskurtsiboen berezko konbentzioak kontuan hartuta, eta ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, jarrera kooperatibo eta errespetuzkoarekin, bai ezagutza eraikitzeke lotura pertsonalak ezarri, bai hainbat gizarte-testuingurutan modu aktiboan eta informatuan esku hartzeko."	Hasierako gutun fisiko eta digitala	Kulturen arteko komunikazio-gaitasunaren ebaluazioa

**25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN**

3	5-6	"Hezkuntzarako eskubidea" - Hezkuntza-desberdintasun globalei buruzko ikerketa eta hausnarketa	CE. CM.1 (arlo guztiekin integratuta)	Hezkuntza-desberdintasunei eta hobetzeko proposamenei buruzko txostena	Ikerketa-prozesuaren eta pentsamendu kritikoaren portfolioa
4	7-8	"Gure jolas liburua sortuz" - Gure inguruko jolas tradizionalak bildu, aukeratu, azaldu eta diseinatu liburua sortzeko.	CE. EA.4 "Hainbat teknika, tresna eta euskarrirekin (digitalak barne) egindako ekoizpen artistikoak, banakakoak edo taldekoak, modu gidatuan sortzea, hizkuntza bisuala osatzen duten elementuen adierazpen-aukerak aplikatuz, eta norberaren gaitasunetan konfiantza eta besteekiko errespetua erakutsiz. "	"Gure lurraldeko jolasak" liburua	Produktuaren kalitateko eta sormeneko errubrika
5	9-10	"Anaitasun birtuala" - Lehen bideokonferentzia ikastetxearekin.	CE. LCL.3 + CE. CM.1 (komunikazio digitala)	Bideokonferentzia grabatzea eta etorkizuneko lankidetzakordioak	Ahozko komunikazio-gaitasunaren eta gaitasun digitalaren ebaluazioa
6	11-12	"Etorkizuna elkarbanatu eta planifikatzen dugu" - Produktuak komunitateari aurkeztu eta lankidetzak jarraituko plana ezartzea	Kompetentzia guztien zeharkako integrazioa	Komunitate-esposizioa eta epe luzerako anaitasun-plana	Taldean autoebaluazioa eta jarraipenarekiko konpromisoa

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

## 7. Jarduera osagarriak (ordu 1 bakoitzak)

### A jarduera: "Egun bat nire eskolan vs. egun bat nire lagunaren eskolan"

- Bi ikastetxeen arteko errutinak, ordutegiak, ikasgaiak eta baliabideak zehatz-mehatz konparatzea.

### B jarduera: "Elkartzen gaituzten jolasak"

- Lagun egin dugun ikastetxetik jasotako jolas tradizionalak praktikan jartzea eta bakoitzean lantzen edo irakasten dena adieraztea. (bideoak egin daitezke ikastetxe lagunera bidaltzeko)

### C jarduera: "Munduko hezkuntza, estatistiketan"

- Eskolatzeari, hezkuntza-baliabideei eta mundu mailako desberdintasunei buruzko datuekin lan egitea, grafiko errazak erabiliz.

## 8. Jarduera nagusien garapen zehatza

### 1-2 SAIOA: "Gure ikastetxe laguna ezagutzuz"

**Iraupena guztira:** 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

#### **Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:**

- Aukeratzen dugun zentroaren inguruko informazioa lortzeko Itaka Escolapios-ekin harremanetan jarri (kokapena, ikasle kopurua, baliabideak, argazkiak, etab.).
- Interneterako sarbidea duten ordenagailuak/ tabletak prestatu
- Konparaziozko ikerketa-txantiloia sortu
- Mapamundi fisiko eta digitala prestatu
- Gure zentroko argazkiak eta bideoak lortzea
- Dosierra sortzeko materiala prestatu: folioak, karpetak, diseinurako-materialak

#### **Saioaren sarrera (10 minutu):**

" Gaur gure lagun berriak ezagutuko ditugu. Munduko beste herrialde batean gurea bezalako ikastetxe bat dago, zuen adineko haurrekin. Itaka Escolapios-ek lagunduko digu haiekin konektatzen. Ikertzaileak izango gara haien ikastetxea nolakoa den jakiteko eta gurea nolakoa den ere erakutsiko diegu".

#### **Garapena pausoz pauso:**

##### **1. saioa (45 minutu):**

# 25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

## 1. Ikastetxearen aurkezpena (15 minutu)

- Ikastetxe horren lurraldea eta hiria mundu mapan kokatzea
- Zentro lagunaren argazkiak erakustea
- Oinarrizko informazioa irakurri: ikastetxearen izena, ikasle kopurua, hizkuntza nagusia
- Gutxi gorabeherako distantzia eta ordu-desberdintasuna kalkulatu
- Hasierako hausnarketa: "Zertan izango du gure ikastetxearen antzik? Zertan izango da desberdina?"

## 2. Irakasle baten laguntzaz egingo den ikerketa digitala (20 minutu)

- Ikasleak 3-4ko taldeetan banatu
- Talde bakoitzak alderdi bat ikertzen du: herrialdearen geografia, klima, kultura eta hezkuntza sistema
- Irakasleak emandako iturri seguruak eta egokituak erabiliko ditu
- Oinarrizko datuekin ikerketa-fitxa osatuko da
- Txostenean sartzeko irudi garrantzitsuak bilatu

## 3. Gure zentroa ezagutuz (10 minutu)

- Ikastetxearen ezaugarriei buruz gogoeta egitea: ikasle kopurua, instalazioak, ordutegiak
- Zentroko hainbat gunetako argazkiak egin
- Ikastetxean gehien gustatzen zaiena zerrendatu
- Pentsatu zer jakin nahiko duten ikastetxe laguneko ikasleak, horren inguruko informazioa biltzen hasteko.

## 2. saioa (45 minutu):

### 1. Dosier konparatiboaren hasiera (25 minutu)

- Talde bakoitzak dosierraren atal bat sortzen du:
  - Bi ikastetxeak azaltzen diren azala
  - "Gure ikastetxea": ezaugarriak, argazkiak, datuak
  - "Gure ikastetxe laguna": kokapena, ezaugarriak
  - "Konparatzen": berdintasun eta ezberdintasunak
  - "Egin nahi ditugun galderak": ikastetxe lagunari buruzko bitxikeriak

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

## 2. **Dosieraren diseinu bisuala** (15 minutu)

- Informazioa era erakargarrian antolatzea
- Mapak, grafiko errazak, argazkiak
- Orrialde bakoitzak izenburua, irudiak eta testu laburra izan behar ditu
- Orrien aurkibidea sortu eta orrialdeetan zenbakia jartzea

## 3. **Taldeen arteko aurkezpena** (5 minutu)

- Talde bakoitzak bere atala aurkezten du (motzean)
- Atal guztiak txosten bakar batean batzen ditugu
- Informazio hori aurkezpen-gutunetan nola erabili planifikatu

### **Beharrezko materialak:**

- Irakasle baten laguntzaz egingo den interneterako sarbidea
- Itaka Escolapios-etik ateratako informazioa
- Ikerketa-plantillak
- Dosiererako materiala: folioak, karpetak, errotulagailuak
- Argazki kamera
- Mapamundi fisikoa edo digitala

### **Ebaluazioa:**

- Ikerketaren kalitate-errubrika
- Lan kooperatiboaren behaketa
- Azken produktuaren ebaluazioa: txostena

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

## **3-4 SAIOA: "Lehenengo gutunak: aurkezten gara"**

**Iraupena guztira:** 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

### **Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:**

- Gutun formal eta informaleko adibideak prestatzea
- Nazioarteko bidalketarako gutunazal handiak lortzea
- Aurkezpen-gutunen adibideak prestatu
- Bidalketa prozesua Itaka Escolapios-ekin koordinatzea
- Gutunak egiteko paper politak prest izatea
- Gutunak digitalizatzeko scanner edo argazki kamera prestatu

### **Saioaren sarrera (10 minutu):**

" Unerik hunkigarriena iritsi da: gure lehen gutunak idatziko dizkiegu ikastetxeko haurrei. Elkar ezagutzeko zain daude. Alde batetik banakako gutunak idatziko ditugu gure burua aurkeztuz, eta bestetik talde-gutun bat gela osoaren izenean".

### **Garapena pausoz pauso:**

#### **3. saioa (45 minutu):**

##### **1. Aurkezpen-gutun baten egitura (15 minutu)**

- Aurkezpen-gutunaren adibidea erakutsi
- Zatiak identifikatu: data, agurra, aurkezpen pertsonala, besteari egiten dizkiogun galderak, agurra
- Beste herrialde batzuetarako kortesia-formula egokiak praktikatzea
- Partekatzeko informazio pertsonal egokiari buruzko gogoeta egitea

##### **2. Banakako gutunak idaztea (25 minutu)**

- Ikasle bakoitzak bere gutun pertsonala idazten du
- Aurkezten diegun egitura:
  - Aurkezpena: izena, adina, familia
  - Zaletasunak: kirolak, musika, janaririk gustukoena
  - Gure ikastetxea: ikasgairik gogokoena, lagunak, ekintzak...
  - Galderak: "Nolakoa da zure familia? Zer gustatzen zaizu egitea? Nolakoa da zure ikastetxea?"

# 25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

### 3. **Ikaskideren arteko berrikuspena** (5 minutu)

- Ikaskideen artean gutunen trukea egingo da berrikuspen bat egiteko
- Edukia eta forma hobetzeko iradokizunak egingo dizkiote elkar
- Oinarrizko akatsen zuzenketa

### 4. saioa (45 minutu):

#### 1. **Ikasgelako talde-gutuna** (20 minutu)

- Arbelean idazketa kolaboratiboa
- Egitura:
  - Ikasgelaren aurkezpena: ikasle kopurua, maila
  - Ikastetxearen eta hiriaren deskribapena
  - Elkarrekin egiten dituzten ekintzak
  - Materialak eta esperientziak trukatzeko proposamena
- Ikasle bakoitzak esaldi edo ideia bat emango du

#### 2. **Ilustrazioa eta dekorazioa** (15 minutu)

- Ikasle bakoitzak bere karta indibiduala marrazkiekin apaintzen du.
- Azalpen-marrazki txikiekin osatu: etxea, familia, maskota
- Talde-gutuna denen artean apaindu
- Taldearen eta ikastetxearen argazkiak sartu

#### 3. **Bidalketa prestatzea** (10 minutu)

- Gutun guztiak sinatu
- Gutunak gutun-azal egokietan sartu
- Itaka Escolapios-en laguntzaz helbideak idatzi
- Proiektua artxibatzeako kopiak digitalizatu
- Hausnarketa: "Zer erantzun espero dugu jasotzea?"

#### **Beharrezko materialak:**

- Gutunak idazteko kalitatezko papera
- Nazioarteko bidalketarako gutun-azal egokiak

## 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

- Idazketa eta dekorazio materiala
- Karta-egiturako txantiloak
- Bidaltzeko zigiluak (Itaka Escolapios-ekin koordinatuta)
- Digitalizatorako Scanner edo argazki kamera

### **Ebaluazioa:**

- Idazketaren kalitateko errubrika: egitura, ortografia, edukia
- Komunikazio-erregistroaren egokitasunaren ebaluazioa
- Edukian kulturen arteko errespetuaren behaketa
- Autoebaluazioa: "Zer ikasi dugu gutun hauek idazten?"

### **5-6 SAIOA: "Hezkuntzarako eskubidea"**

**Iraupena guztira:** 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

#### **Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:**

- Munduko hezkuntzari buruzko estatistika egokituak biltzea (UNICEF, UNESCO)
- Hezkuntza-desberdintasunei buruzko bideo laburrak prestatu
- Grafiko errazak sortzea herrialdeak konparatuz
- Hezkuntzarako aukerarik ez duten haurren testigantza bideoa edo testuak bilatu
- Infografiak sortzeko materiala antolatu
- Itaka Escolapios-ekin harremanetan jarri adibide zehatzetarako

#### **Saioaren sarrera (10 minutu):**

"Gu egunero gatoz eskolara eta normala iruditzen zaigu. Baina munduan badira eskolara joan ezin diren haurrak. Ikertuko dugu zergatik gertatzen den hau eta zer egin dezakegun laguntzeko. Era berean, ikusiko dugu zergatik den hezkuntza munduko haur guztien eskubidea".

#### **Garapena pausoz pauso:**

##### **5. saioa (45 minutu):**

###### **1. Zer da eskubide bat? (15 minutu)**

- Ideia-zaparrada: "Zer behar dute haur guztiek zoriontsu izateko?"

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

- "Zuzenbide" kontzeptua sartu: denok merezi dugun zerbait
- Haurren Eskubideen Adierazpena modu bisualean aurkeztu
- Hezkuntzarako eskubidea funtsezkotzat identifikatu
- Hausnarketa: "Zergatik da garrantzitsua haur guztiek irakurtzen ikastea?"

## 2. **Datuekin egindako ikerketa** (20 minutu)

- Grafiko sinpleak erakutsi: "Herrialde ezberdinetan ikastetxera joaten diren haurren datuak"
- Gure herrialdearen eta ikastetxe-lagunaren herrialdearen arteko datuak konparatu
- Ez eskolatzearen arrazoiak identifikatzea: pobrezia, gerrak, distantzia, haurren lana
- Ikusi hezkuntzarako aukerarik ez duten haurren testigantza bideoak
- Informazio-erregistroa ikerketa-fitxetan

## 3. **Gure errealitatearekin konektatzea** (10 minutu)

- Gure hezkuntza-privilegioei buruz gogoeta egitea
- Ikastetxean ditugun baliabideen zerrenda
- Gure bizitza hezkuntzarik gabe nolakoa izango litzatekeen pentsatzea
- Egoera honi buelta emateko Itaka Escolapios-ek egiten duen lana aurkeztu

## 6. **saioa** (45 minutu):

### 1. **Infografia sortzea** (25 minutu)

- Ikasgela taldeetan zatitu, hezkuntzarako eskubideari buruzko infografia sortzeko
- Talde bakoitzak puntu bat landuko du:
  - "Zergatik joan behar dute haur guztiek eskolara?"
  - "Hezkuntza eragozten duten oztopoak"
  - "Nola laguntzen du Itaka Escolapios-ek"
  - "Zer egin dezakegu guk"
- Ikerketaren datuak, marrazkiak eta irudiak erabiliko ditugu infografiarako.

### 2. **Ekintza proposamenak** (15 minutu)

- Talde bakoitzak ekintza zehatzak proposatzen ditu:

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

- Hezkuntza-proiektuetarako laguntza
- Materialen trukea ikastetxe-lagunarekin
- Gure komunitatean sentsibilizatzea
- Gure hezkuntza-baliabideen balorazio eta zaintza

### 3. **Aurkezpena eta sintesia** (5 minutu)

- Ikasgela osoaren aurrean infografiak aurkeztea
- Proposamen guztiekin sintesi-dokumentua sortzea
- Talde-konpromisoa: "Zer egingo dugu ikasi dugunarekin?"

#### **Beharrezko materialak:**

- Hezkuntzari buruzko datu estatistiko egokituak
- Infografiak sortzeko materiala
- Bideoetarako sarbidea
- Kartulinak eta diseinu-materiala
- Itaka Escolapios-en lanari buruzko informazioa

#### **Ebaluazioa:**

- Zuzenbide-kontzeptua ulertzeko ebaluazioa
- Infografien kalitateko errubrika
- Pentsamendu kritikoaren behaketa proposamenetan
- Ikasteko prozesuaren erregistroa duen portfolioa

## **SAIOA 7-8: "Gure jolas liburua sortzen"**

**Iraupena guztira:** 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

**Irakaslearen alde zuzeneko prestakuntza:**

- Eskualdeko jolas tradizionalei buruzko informazioa bildu
- Aldez aurretik, ikasleek beren aitona-amonak antzinako jolasen inguruan elkarrizketatzea
- Liburua sortzeko materiala prestatu: folioak, kartulinak, enkoaderatzeko materiala
- Argazki kamera edo mugikorra lortu kalitatezko bideoak grabatzeko
- Jolas-orriko txantiloia prestatzea: izenburua, materialak, arauak, marrazkia
- Gorputz-hezkuntzarekin koordinatzea, zenbait jolas probatzeko

**Saioaren sarrera (10 minutu):**

" Jolasak mundu osoko hurrekin partekatzen ditugun opariak dira. Gure herrialdeko jolasekin liburu berezi bat sortuko dugu gure ikastetxe lagunari bidaltzeko. Gure jolasak ikasi ahal izango dituzte eta ondoren guk, haienak ikasiko ditugu".

**Garapena pausoz pauso:**

**7. saioa (45 minutu):**

- 1. Jolas tradizionalen bilduma (20 minutu)**
  - Ideia-zaparrada: ezagutzen dituzten jolasak (familian galdetu dezakete)
  - Saillapena: patio-jolasak, mahai-jolas, material errazekin egindako jolasak
  - Familiaren bat gonbidatu eta talde-elkarrizketa bat sustatu jolasen inguruan.
  - 8-10 joko adierazgarri eta interesgarrien hautaketa
  - Bozketa demokratikoa liburuan sartuko ditugunak aukeratzeko
- 2. Arauen ikerketa (15 minutu)**
  - Ikasle bakoitzak jolas bat aukeratu du sakon ikertzeko
  - Fitxa osatu: beharrezko materialak, jokalarikopurua, arauak
  - Familiarekin edo internetekin kontsultatu arauak ondo dauden jakiteko
  - Joko berdinen bariantak identifikatzea

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

## 3. **Liburuaren diseinua** (10 minutu)

- Egitura erabaki: azala, aurkibidea, jolas-orriak, atzealdea
- Ardurak banatu: azala, aurkibidea, jolasak...
- Irudiak eta azalpen-bideoak planifikatzea
- Liburuaren izenburua aukeratu: "(Beraien herriko izena)-ko Jolasak"

## 8. saioa (45 minutu):

### 1. **Banakako orriak sortzea** (30 minutu)

- Ikasle bakoitzak bere jolasaren orrialdea sortzen du
- Orrialdearen egitura:
  - Jolasaren izena, izenburu moduan
  - Jolasaren azalpen-irudia
  - Beharrezko materialen zerrenda
  - Pausoz pauso azaldutako arauak
  - Jokalari kopurua eta gomendatutako adina
- Ikaskideen arteko berrikuspena, azalpenak argi daudela ziurtatzeko.

### 2. **Ikus-entzunezko elementuak** (10 minutu)

- Bideo laburrak grabatu (1-2 minutu) jolas batzuk azalduz
- Ikasle bakoitzak bere jolasa azaltzen du 30 segundotan kameraren aurrean
- QR kode sinpleak sortzea, bideoak liburuko orriekin lotzeko
- Materialen eta jolasaren argazkiak

### 3. **Liburuaren montaketa** (5 minutu)

- Jolas-orriak orden logikoan antolatzea
- Enkoadernatu
- Azal erakargarria sortzea, izenburu eta marrazki adierazgarriekin
- Dedikatoria gehitu: "(gure herriko izena)-ko ikasleengatik (ikastetxe-lagunaren izena) ikasleentzako"

## **Beharrezko materialak:**

- Enkoadernatzeko materiala eta folioak.

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

- Marrazketa eta diseinu tresnak
- Bideo eta argazki kamera
- Familien parte hartzea
- Jolas-orrien txantiloak

## **Ebaluazioa:**

- Azken produktuaren kalitate-errubrika
- Azalpenen argitasuna
- Diseinu eta irudien sormena
- Koebaluazioa: ikasle bakoitzak ikaskide baten orrialdea ebaluatzen du

## **9-10 SAIOA: "Anaitasun birtuala"**

**Iraupena guztira:** 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

### **Irakaslearen alde aurreko prestakuntza:**

- Itaka Escolapios-ekin eta ikastetxe lagunarekin koordinatzea bideodeia egin ahal izateko.
  - Plataforma teknikoa prestatzea: ordenagailua, proiektorea, kamera, mikrofonoa
  - Bi herrialdeen arteko ordu-desberdintasuna ondo kalkulatu eta kointziditzeko momentua aurkitu.
  - Besteari egiteko galdera egituratuak prestatu
  - Ikasgela antolatu, guztiek parte hartu ahal izateko
  - Erakusteko materialak prestatu: jolas liburua, ikastetxeko argazkiak
  - Hizkuntzarengatik itzultzaile bat beharrezkoa izango balitz, hau koordinatu.
- \* ordutegiak bateraezinak badira, ikastetxe bakoitzak aurkezpen bideo txiki bat sortu eta eskolara bidali dezake.

### **Saioaren sarrera (10 minutu):**

" Iritsi da egun handia! Zuzenean hitz egingo dugu ikastetxeko lagunekin. Ikusi, entzun eta prestatu dugun guztia erakutsi ahal izango diegu. Haien nolakoak diren eta haien ikastetxea nolakoa den ere ezagutuko dugu".

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

## Garapena pausoz pauso:

### 9. Saioa (45 minutu) - Prestaketa:

#### 1. Bideodeiaren entsegua (20 minutu)

- 30 segundoko banakako aurkezpenak egin
- Talde-agurra eta ongietorri-kanta entseatu
- Teknologia probatu: mikrofonoa, kamera, interneterako konexioa
- Parte hartzeko ordena eta landu beharreko gaiak erabaki

#### 2. Materialak prestatzea (15 minutu)

- Erakusteko elementuak antolatu: jolas-liburua, marrazkiak, argazkiak
- Aldez aurretik grabatutako ikasgelaren "tour birtuala" prestatu
- Jolas-liburuaren orrialde gogokoenak aukeratu, horiek erakusteko
- Opari sinboliko txikiak prestatu ondoren bidaltzeko

#### 3. Urduritasunen kudeaketa (10 minutu)

- Pertsona berriak ezagutu baino lehen urduri egotea oso ohikoa dela komentatu.
- Errespetu eta pazientzia arauak ezarri
- Gogoratu hizkuntza edo konexio ezberdintasunak egon daitezkeela
- Giro lasaia eta adiskidetasuna sortzea garrantzitsua izango da

### Saioa 10 (45 minutu) - Bideodeia:

#### 1. Konexioa eta agurrak (10 minutu)

- Ikastetxe lagunaren lotura teknikoa egitea
- Hasierako agurrak eta bi taldeen aurkezpena
- Bi ikastetxeek prestatutako ongietorri abestia

#### 2. Dei egituratua (25 minutu)

- Ikastetxe bakoitzaren aurkezpena (5 minutu bakoitza):
  - Ikastetxearen izena, kokapena, ikasle kopurua
  - Tour birtuala instalazioetan, ahal bada teknikoki.
  - Ikasle batzuen aurkezpena banaka
- Galderen trukea (15 minutu):

## 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

- "Zein da zuen janaririk gogokoena?"
  - "Zer egiten duzue patio garaian?"
  - "Zein da zuen ikasgairik gogokoena?"
  - "Zein jolas gustatzen zaizkizue gehien?"
- Jolas liburuaren aurkezpena eta 2-3 jolasen azalpena

### 3. **Etorkizuneko plangintza eta agurra (10 minutu)**

- Hurrengo komunikazioetarako datak adostea, ahal bada.
- Bidalketak planifikatzea opari eta gutun trukea egiteko.
- Elkarrekin egiteko proiektuen proposamena: ospakizunak, ikerketak, bi ikastetxeetako ikasleen arteko idatzizko komunikazioaren jarraipena...
- Talde-agurra, harremana mantenduko dutela esanez
- Esperientziaren berehalako ebaluazioa

#### **Beharrezko materialak:**

- Bideodeierako material teknikoa
- Bukatutako jolas-liburua
- Ikastetxearen aurkezpen materialak
- Galdera prestatuak dituzten kartelak
- Opari sinbolikoak, ondoren bidaltzeko

#### **Ebaluazioa:**

- Ahozko komunikazio-gaitasunak behatzea kultura arteko testuinguruan
- Beste kulturarekiko errespetuaren eta jakin-minaren ebaluazioa
- Une esanguratsuen erregistroa
- Momentuko autoebaluazioa: "Nola sentitu gara? Zer ikasi dugu?"

## **11-12 SAIOA: "Etorkizuna elkarbanatzen eta planifikatzen dugu"**

\* 11. eta 12. saioak ez badituzu egiten edo aldatzearen erabakia hartzen baduzue, lantzen denaren azalpen txiki bat ematea eskatuko dizuegu.

**Iraupena guztira:** 90 minutu (45 minutuko 2 saio)

### **Irakaslearen aldez aurreko prestakuntza:**

- Proiektu osoa erakusteko espazioa antolatzea
- Familiak, beste irakasleak eta ikastetxeko zuzendaritza gonbidatzea
- Eskola-lagunaren "enbaxadoreak" ziurtagiriak prestatzea
- Itaka Escolapios-ekin aurkezpena koordinatzea
- Ikus-entzunezko materiala prestatzea: argazkiak, bideoak...
- Ikastetxe-lagunarekin etorkizunerako jardueren kronograma planifikatzea

### **Saioaren sarrera (10 minutu):**

"Sekulako lana egin dugu. Orain, ikasi duguna gure komunitate osoarekin partekatzeko unea da, eta ikastetxe-lagunarekin dugun adiskidetasunak nola jarraituko duen planifikatzeko unea. Munduko eskolen arteko senidetzearen enbaxadoreak izango gara".

### **Garapena pausoz pauso:**

#### **11. saioa (45 minutu) - Erakusketa prestatzea:**

- 1. Erakusketaren muntaketa (25 minutu)**
  - Gaikako txokoak antolatu:
    - "Gure ikastetxe-laguna ezagutuz" (konparaketa txostena)
    - "Gure gutunak eta erantzunak" (korrespondentzia)
    - "Hezkuntzarako eskubidea" (infografiak)
    - "Jolas-liburua" (azken produktua)
    - "Bideokonferentzia" (bideo laburpena edo irudia)
  - Txoko bakoitzak sortutako produktuak eta prozesuaren azalpena biltzen ditu.
  - Bisitarietzako 15 minutuko aurkezpena prestatu
- 2. Aurkezpenen entsegua (15 minutu)**
  - Talde bakoitzak proiektuaren zati baten azalpena praktikan jartzen du.

# 25 URTE **SUSTRAIAK ZABALTZEN**

- Bisitariak egin ditzaketen galderen erantzunak entseatzeari
- Sortutako jolas-liburuaren erakusketa egitea
- Itaka Escolapios-ei eta familiei eskerrak ematea

### 3. **Azken prestaketak** (5 minutu)

- Espazioaren antolaketa berrikustea
- Gonbidatuen parte-hartzea baieztatzea
- Harrera prestatu kultura arteko freskagarri txikiarekin

## 12. saioa (45 minutu) - Ekitaldi komunitarioa:

### 1. **Gonbidatuen harrera** (10 minutu)

- Ongi etorri Itaka Escolapios-en familia, irakasle eta gonbidatuei
- Senidetze proiektuaren aurkezpen orokorra
- Aurkezpenaren egitaraua entregatzea

### 2. **Proiektuaren aurkezpena** (25 minutu)

- Talde bakoitzak bere zatia 3-4 minututan aurkezten du
- Gonbidatuen parte-hartzearekin sortutako jolas liburuaren erakusketa
- Bideokonferentziaren zatien erreproduktzioa
- Trukatutako gutun esanguratsuenen irakurketa
- Hezkuntzarako eskubideari buruzko ikaskuntzak aurkeztea

### 3. **Etorkizunaren plangintza** (10 minutu)

- Ikastetxe-lagunarekin dugun etorkizuneko jardueraren plana aurkeztea :
  - Denboran zehar emango den gutunen trukea
  - Urteko bideokonferentziak
  - Datorren ikasturterako proiektu bateratuak
  - Ospakizunak eta tradizioak trukatzeari
- "Ikastetxe-lagunaren enbaxadore" ziurtagiriak ematea
- Adiskidetasuna mantentzeko talde-konpromisoa
- Oroigarri bezela, talde argazkia

# 25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

## **Beharrezko materialak:**

- Txokoak eta erakusketa-materiala
- Aurkezpenetarako ikus-entzunezko materiala
- Ziurtagiri pertsonalizatuak
- Ekitaldia dokumentatzeko kamera

## **Ebaluazioa:**

- Ahozko aurkezpenerako konpetentzien ebaluazioa
- Proiektuarekin hartutako konpromisoaren behaketa
- Familien eta hezkuntza komunitatearen feedbacka
- Azken autoebaluazioa: "Nola hazi gara pertsona eta ikasle bezala?"
- Hurrengo ikasturteetan emango den proiektuaren jarraipen-plangintza ebaluatzea